

“ELEANITZ” PROIEKTUAN (INGELESA) PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Ingelesaren irakaskuntza goiztiarra bideratzen duen “Eleanitz” proiektua Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak (G.I.E.) antolatzen du 1991-92. ikasturteaz geroztik. G.I.E-ren ardura da 4 urtetik hasi eta 16 urterarte beharrezkoak diren ikasmaterialak sortzea, irakasleen prestakuntza eta jarraipena eskaintzea, proiektuaren ebaluazioa egitea, eta eginkizun horietarako beharrezkoak diren gizabaliabideak aurkitzea.

Proiektu honetan parte hartzeko, ikastolek federatuta egon behar dute eta, aurrebaldintza horretaz aparte, ondorengo beste baldintza hauek onartzea eta ikastola horretako Gobernu-organoei izenpetzea eskatzen da:

- 1.- 4 urterekin hasi eta 16 urterarte jarraitzeko konpromezua hartzea. Lehen Hezkuntzako ikastola bada, hau da 12 urterartekoa, 16 urterarte proiektuaren luzapena nola egingo den aurrikustea.
- 2.- Maila desberdinetarako aurrikusita dauden ordu eta saio kopuruak betetzeko konpromezua hartzea.
- 3.- Proiektuan sartzen diren irakasleek iraunkortasunez jarraitzeko baldintzak betetzea.
- 4.- Maila desberdinetarako proposatzen ditugun ikasmaterialak erabiltzea.
- 5.- Irakasleentzat planifikatzen diren prestakuntza saioetan parte hartzea.
- 6.- Egiten diren ebaluazioetan parte hartzea.
- 7.- Proiektuaren gastuak ordaintzea.

Baldintza horietaz gainera, ondorengo beste gomendio hauek ere kontuan hartzea eskatzen da:

- 1.- Proiektuan parte hartzeko erabakia ahalik eta irakasleen eta gurasoen onarpen zabalarekin bideratzea.
- 2.- Ingelesa ondo menderatzen duten eta komunikatzeko gaitasuna duten irakasleak aukeratzea.
- 3.- Proiektuaren lehen urteetan (4-7/8 urte) ingeleseko irakaslearen klase orduak murriztea eta lana egiteko gela propioa antolatzea

“ELEANITZ” PROIEKTUAN (INGELESA) PARTE HARTZEKO ESKAERA

Ikastolaren izena:.....

Herria:.....

2000eko.....ren.....an egindako Gestio-batzordearen bileran hartutako erabakia jarraituz, “ELEANITZ” proiektuan parte hartzeko eskaera egiten diogu Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari eta dokumentu honetan eskatzen diren baldintzak betetzeko eta egiten diren gomendioak kontuan hartzeko konpromezua hartzen dugu.

Eta guzti horren lekuko, izenpetzen dut.....n, 2000eko.....ren.....an

(Zigilua)

Lehendakaria

ELEANITZ” PROIEKTUAN (INGELERA) DBHko LEHEN ZIKLOAN (12-14 urte) JARRAITZEKO BALDINTZAK

Ingelesaren irakaskuntza goiztiarra bideratzen duen “Eleanitz” proiektua Gipuzkoako Ikastolen Elkartek (G.I.E.) antolatzen du 1991-92. ikasturtez geroztik. G.I.E-ren ardura da 4 urtetik hasi eta 16 urterarte beharrezkoak diren ikasmaterialak sortzea, irakasleen prestakuntza eta jarraipena eskaintzea, proiektuaren ebaluazioa egitea, eta eginkizun horietarako beharrezkoak diren giza-baliabideak aurkitzea.

1998 urtarrilaren 19an Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko Talde Bateragileak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloan (12-14 urte) proiektu honetan jarraitu ahal izateko, ikastolek ondorengo baldintza hauek onartzea eta ikastola horretako Gobernu-organoei izenpetzea beharrezkotzat jo zuen::

- 1.- DBHko etapa osoan (12-16 urte) jarraitzeko konpromezua hartzea.
- 2.- DBHko Lehen Zikloan (12-14 urte) astero 4 ordu eskaintzea ingeleraren irakaskuntzarako.
- 3.- Proiektuan sartzen diren irakasleek iraunkortasunez jarraitzeko baldintzak betetzea.
- 4.- DBHko Ziklo honetarako prestatu diren “Subject Projects” ikasmaterialak erabiltzea.
- 5.- Irakasleentzat planifikatzen diren prestakuntza saioetan parte hartzea.
- 6.- Egiten diren ebaluazioetan parte hartzea.
- 7.- Proiektuaren gastuak ordaintzea.

Ikastolaren izena:.....
Herria:.....

ko.....ren.....an egindako Gestio-batzordearen bileran hartutako erabakia jarraituz, dokumentu honetan DBHko Lehen Zikloan (12-14 urte) “Eleanitz” proiektuan jarraitzeko eskatzen diren baldintzak betetzeko konpromezua hartzen dugula adierazten dugu.

Eta guzti horren lekuko, izenpetzen dut.....n, 200 ko.....ren.....an

(Zigilua)

Lehendakaria